

**2024KO URRIAREN 23AN EGINDAKO  
EZ-OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

**BERTARATUAK**

Olaia Nieto Legarra  
Mikel Iturbe Saizar  
Idoia Garayalde Goicoechea  
Noelia Lataburu Ortiz  
Ioritz Lazcano Aranalde  
Gorka Sagarna Larrañaga  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Begoña Tolosa Mendia

**EZ BERTARATUAK**

Zinegotzi guztiak bertaratu dira.

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2024ko urriaren 23an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko EZ-OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

Udalbatza audio sistema bidez grabatua izan da, grabaziotik ateratako fitxategi bat dago, idazkariak idatzitako aktarekin batera joango dena.

**1.- 2023KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.**

Alkateak adierazi du Ogasun batzordetik igaro ondoren, iragarkia eta alegazioak aurkezteko epea ireki eta ez dela inongo alegaziorik izan.

Orain Udalbatzak behin betikoz onartu behar du. Bozketara pasa dira.



# 2023ko KONTU OROKORRA

## KONTU OROKORRAREN EDUKIA

1	Likidazioa kapituloka
2.a	Diru Fluxuen egoera
2.b	Diruzaintza egoera
3	Diruzaintzako gerakina
4	Aurrekontuz kanpoko mugimenduak
5	Balantzea
6.a	Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua
6.b	Ondare garbiaren aldaketa guztien egoera orria
7.a	Gastuen egoera
7.b	Sarreren egoera
7.c	Aurrekontuaren emaitza
8	Ibilgetuaren mugimenduak
9	Aurrekontu emaitzaren eta kontabilitate emaitzaren arteko berdintasun egoera
10	2023ko Ekitaldiaren kreditu aldaketak
11	Likidazioko kontuhartzailearen txostena
12	Egonkortasuna Irainkortasuna eta Gastu arauaren txostena
13	Likidazioaren Alkatearen Dekretua
14	Kontu Orokorraren memoria
15	Kontu Orokorraren kontuhartzailearen txostena

**BOZKETA. Aho batez onartu da.**

**ALDE:** Gorka Murua Macuso (Eh bildu), Olaia Nieto Legarra(Eh bildu), Mikel Iturbe Saizar(Eh bildu), Idoia Garayalde Goicoechea(Eh bildu), Noelia Lataburu Ortiz(Eh bildu), Ioritz Lazcano Aranalde(Eh bildu), Gorka Sagarna Larrañaga(EAJ/PNV), Ana Jesus Leunda Gurrutxaga(EAJ/PNV), Begoña Tolosa Mendia(EAJ/PNV).

## 2.- 2025. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAREN TASEN ALDAKETA.

Gorka Alkateak hartu du hitza eta zerga eta tasen aldaketak aipatzen hasi da banan-bana, jarraian dagoen zerrendaren arabera.

- IBI %3
- IAE GFA datuak
- IBILGAILUAK %3
- ICIO-EIZ berdin
- GAINBALIOA Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldaketetara moldatzen dugu ordenantza.
- HONDAKINen tasa aldaketa esanguratsua eta lehenik eta behin 7/2022ko legea aipatu behar da, tasa ez defizitarioa izan behar dela.

Hori dela eta, udalak azterketa bat egin zuen defizita kalkulatzeko eta Industria eta Etxetiarren gastuak segregatu zituen. Azterketaren ondoren, industriaren defizita handiagoa zela ikusi zen.

Ondorioz etxetiarren tasa %25 igotzea eta Industriaren %50 igotzea proposatzen da.

Halaber, edukiontziak irekitzeko txartelen bikoizketa asko izaten da eta hori dela eta, etxebizitzetan 2. Txartel bat izateko aukera ere jarriko da 7€an.

Elikagai organikoen poltsen prezioa ere, benetako poltsaren kostura igoko da 2,05€tara.

- Dokumentuak fotokopiatzea 0,05€ igotzea.
- Hileta zerbitzuak %3 igo, borobilduz. Eta kolunbariona tasa proposatzen da 160€ igotzea.
- Animalia arriskutsuen kasuan 2 €
- Iharduera baimenak %-3 gora borobilduz.
- Hirigintza lizentziak berdin.
- Larrialdi etxebizitza berdin mantetzea.
- Hautaketa prozesuak berdin mantetzea.
- Kaleak utzita animaliak %3
- Ibilgailu abandonatuak
- Herri erabilietako lurra erabiltzea %3
- Kutxazain automatikoa %3
- Etxez etxe zerbitzuak berdin mantentzea.
- TRINKETE bazkideen kuotei dagokienez aldaketa ere egingo da. Bi kuota izango dira, 16-24 urte bitartekoak eta 25 urtetik aurrerakoak. Eta proposatzen den beste aldaketa, hileko kuota izan beharrean hiruhileko kuotak izatea.
- Kultur ikastaroetan ez dago aldaketarik.
- Festetako postuak jartzea %3 igotzea.
- **IBlan kasuan**, honela gelditzen da, etxebizitza hutsen kasuan erreargua jartzea proposatzen da eta horrekin lotuta hobariak:

1. Karga tasa:

Hiri izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikatuko zaion karga-tasa:

— %0,1939koa izango da izaera orokorrean.

— Karga-Tasa orokorra: %0,5812 lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoan kokatuta dauden ondasun higieziei aplikatuko zaie dagozkien balorazio ponentzien arabera; eraikuntzak salbuetsita geratzen dira kokatuta dauden ondasun higiezinaren erabilera nagusia industrial edo hirugarren sektorekoa ez denean.

Landalur ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa ehuneko %0,6283koa da.

### **ERREKARGUAK**

Etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinak, subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez diren -hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez eta etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinak % 100eko errekarua izango dute zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari aplikatuko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargua hau aplikatzearen ondorioetarako, Katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinak hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira, finka erregistratuta bakarrik osatzen dutenean. Ondorio horietarako ere, presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi denaren/direnen ohiko bizilekua dela.

### **ERREKARGUA APLIKATUKO EZ ZAIZKIEN KASUAK**

**Gainkargu hau aplikatuz salbuetsita egongo dira jarraian aipatuko diren egoeraren bat betetzen duten egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak:**

1. Higiezinak aloka daitezen erakunde publikoren batekin jabeak kontratu bat sinatzen duenean.
2. Hirugarren adineko egoitzatan erroldatutako pertsonen titularitateko higiezinak. Beti ere higiezina bere ohiko etxebizitza izan denean egoitzan erroldatu aurretik.
3. Zergaren sortzapeneko egunean eraberritzen ari diren higiezinak. Hori horrela dela egiaztatu behar da aurkezturik, edo udal obra-lizentzia, edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurreiazko jakinarazpena, sortzapen-eguna exekuzio-eparean barruan egon behar duelarik.
4. Adinagatik (85 urte baino gehiago eta 18 baino gutxi-ago) edo egiaztatutako mendekotasunagatik hutsik geratu den etxebizitza, erroldatutako pertsona aldatu behar bada beste etxebizitzara, dela mendeko pertsonarena, dela familiaren inguruko zaintzaile ez profesionalarena.  
Kasu honetan, hori justifikatzen duen mendekotasunaren balorazioa behar da, organo eskudunak egina. Balorazio hori ez da eskatuko mendeko pertsonal 85 urte beteak baditu zergaren sortzapen-egunean. Gainera beharrezkoa izango da egiaztatzea, dagokion errolda-ziurtagiriaren bidez, mendeko pertsona eta zaintzailea etxebizitza berean daudela erroldatuta.
5. Ordenazioz kanpo dauden, aurredeklaratuta dauden edo hirigintzako kudeaketapean dauden higiezinak.
6. Gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituztela frogatzen duten etxebizitzei ez zaie errekarua ezarriko. Eskatuko diren gutxieneko bizigarritasun baldintzak hemen daude jasota: 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduteko babestuei buruzkoa; IV. eranskina. Horretarako, ondasun higiezinaren jabeak, eskumendun teknikariak (arkitektoak) sinaturiko txosten teknikoa aurkeztu beharko du, frogatuko duena etxebizitzak ez dituela bizigarritasun baldintzak betetzen, eta gainera, ezin izango duela bete, adibidez, gutxieneko azalerarik ez duelako.
7. Mortis causa eskuratutako higiezinak, bi urte igaro ez badira hil ondoren.
8. Titulartasuna higiezinak eraiki dituzten sustatzaileei dagokienez, lehenengo 2 urteetan.
9. Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako direnak.
10. Gainkargu honen helburuen izpirituarekin eta irizpideekin bat datozen kasuetan, Udalak erabakiko du gainkarguaren salbuespena onartzen den edo ez.

Begoña Tolosa zinegotziak hartu du hitza eta zera adierazi du ordenantza fiskalen proposamena ikusi dutela eta gehienbat 3 aldaketa nagusi ikusi dituztela eta garrantzitsuenak, alde batetik KPIaren igoera zergak eta tasetan.

Tartean zalantza bat argitzea eskatzen du, IBIaren %3ko igoera eta Gipuzkoako Foru Aldundiak balio katastralaren %2ko igoerak elkarrenganako eraginik baduten edo ez.

Idazkariak eta Alkateak erantzuten diote bateragarriak direla eta balio katastralaren igoera proposamenak landu ondoren iritsi dela behin-betiko erabakiaren jakinarazpena.

Beste gauza bat ikusi duguna da, legeztatze aldetik begiratuta, gaizki egiten ari ziren tasa batzuk, alde batetik polikiroldegiko tasarena eta hondakinen gastuak orekatu behar direla.

Baina harritu dituen da etxe hutsen errekarua, sei urte badirelako beraiek gobernatzen dutela eta ez dutelako aldaketarik egin gai honetan. Eta baita ere, zaborraren gaiekin egindako lanketa eta etxebizitzaren inguruan, zenbat dauden, zergatik dauden hutsik, zalantza dutela.

Eta sortu zaio beste zalantza bat; etxebizitza hutsen errekaruaren salbuespena aipatu dituenean eta alokairu legal bat egonda, bertan bizi dena, lan harreman baten ondorioz bada adibidez, baina errolda ez duenaren hobia ez dela jasotzen. Gorkak, pertsonen erroldarekin lotura duena

Guzti hau ikusita bai gustatuko zitzaigula lanketa egitea eta bere taldea 2.puntu honetan abstenitu egingo direla.

Gorkak Begoñari erantzunez adierazi du, Ibiaren etxe hutsen errekaruak udalean izan duen garapena eta azken urte hauetan errekarua ez jartzearen arrazoia da, etxebizitza horiek merkaturatzeko saiakeran udalak Gislán enpresarekin (2021) lan bat egin zuela bai eta, orduko kopuruak eta gaur egungoak (57 etxe huts daude Iruran) alderatuz ia 45 etxe horietatik igoera berean jarraitzen dute, hau da, gehiengoa.

Gainera, Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailarekin bildu zen Udala, eta Etxebidek kolaborazio hitzarmena sinatzen duela, baina ez dela herritarrekin biltzen eta bilerak egiten aukerak azaltzeko. Gorka berak ere, Eudeli etxebizitzaren inguruko azterketa bat egiteko eskaera pertsonalki egin zion, eta orainoz ez dago inongo erantzunik.

Gorkak adierazten du, orain ere, ez dakitela etxe hutsak beteko diren eta neurriaren helburuak beteko diren, baina uste dute saiatu behar dutela etxebizitza horiek alokairura bideratzen.

#### **BOZKETA.-**

**ALDE:** Gorka Murua Macuso (Eh bildu), Olaia Nieto Legarra (Eh bildu), Mikel Iturbe Saizar (Eh bildu), Idoia Garayalde Goicoechea (Eh bildu), Noelia Lataburu Ortiz (Eh bildu), Ioritz Lazcano Aranalde (Eh bildu).

#### **AURKA: -**

**ABSTENTZIOA:** Gorka Sagarna Larrañaga (EAJ/PNV), Ana Jesus Leunda Gurrutxaga (EAJ/PNV), Begoña Tolosa Mendia (EAJ/PNV).

### 3.- 2025. URTERAKO EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA.

Alkateak datorren urterako proposamena azaldu die zinegotziei:

#### 2025. urteko egutegi fiskalaren onespena / Aprobación del calendario fiscal del año 2025

2025. urterako Egutegi Fiskala

Calendario Fiscal año 2025

Udalak 2024ko urriaren XXan ospatutako udalbatzan honako hau erabaki zuen:

1. 2025rako egutegi fiskala onartzea. Bertan zehazturiko aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinaraztekoak diren zorrak borondatez ordaintzeko epeak ondoko hauek izango dira:

El Ayuntamiento en sesión plenaria celebrada el XX de octubre de 2024 acordó:

1. Aprobar el calendario fiscal para el año 2025 que figura a continuación. Estableciéndose en el mismo, los plazos de pago voluntario de las deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva:

#### Urtean behin ordaintzeko tributuak / Tributos de periodicidad anual

<i>Errolda / Padrón</i>	<i>Ordaintzeko epeak / Plazos de pago</i>
Trakzio mekanikoko ibilgailuak Vehículos de tracción mecánica	2025ko martxoaren 1etik apirilaren 1a arte Del 1 de marzo al 1 de abril del 2025
Ibilgailuen badoak Vados de vehículos	2025ko abuztuaren 2tik irailaren 2a arte Del 2 de agosto al 2 de septiembre del 2025

#### Hiruhilekoetan ordaintzeko tributuak / Tributos de periodicidad trimestral

<i>Errolda / Padrón</i>	<i>Ordaintzeko epeak / Plazos de pago</i>
Zabor bilketa zerbitzuaren tasa 2025ko 1. lauhilekoa Tasa servicio recogida de basuras 1º cuatrimestre del 2025	2025ko otsailaren 1etik martxoaren 1a arte Del 1 de febrero al 1 de marzo del 2025
Zabor bilketa zerbitzuaren tasa 2025ko 2. lauhilekoa Tasa servicio recogida de basuras 2º cuatrimestre del 2025	2025ko ekainaren 1etik uztailaren 3a arte Del 1 de junio al 3 de julio del 2025
Zabor bilketa zerbitzuaren tasa 2025ko 3. lauhilekoa Tasa servicio recogida de basuras 3º cuatrimestre del 2025	2025ko urriaren 1etik azaroaren 4a arte Del 1 de octubre al 4 de noviembre del 2025
Ikastaroak / Cursos: Kirola / Deporte Kultura / Cultura	Ikastaroak hasi ondoren Tras el inicio de los cursos

#### Hilero ordaintzeko tributuak / Tributos de periodicidad mensual

<i>Errolda / Padrón</i>	<i>Ordaintzeko epeak / Plazos de pago</i>
Trinketeko Kirolgunea Zona deportiva de trinkete	Otsaila, maiatza, abuztua eta azaroaren 20. egunean Febrero, mayo, agosto y noviembre día 20 del mes
Etxez etxeko laguntza Asistencia domiciliaria	Hilaren 15ean Día 15 del mes

2. Aurreko egutegi fiskalean zehazturiko ordainketa egiteko epeak, ezarritako egunean bukatuko dira edo hori jaieguna bada, hurrengo egunean.

2.º Los períodos de pago dispuestos en el precedente calendario fiscal finalizarán el día señalado en el mismo, o siendo este inhábil, el inmediato hábil posterior.



3. Zerga egutegi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, [www.irura.eus](http://www.irura.eus) orrian eta Udal honetako Iragarki Oholean argitaratuko da, kobrantzako iragarkiaren funtzioa bete dezan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Araudia onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Araulzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez, errolda fiskalak, non ordaindu beharreko kuotak eta hauek finkatzen dituzten zergako elementuak ezartzen baitira, jendeaurreko jarriko dira udaletxeko bulegoetan dagozkien kobrantzaepeak hasi baino hamabost egun lehenagotik.

Aipatu errolden betekizunaren aurka berraztertzeiko errekurtsua jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-bidera jo aurretik, erakustaldi publikoko epean eta epe horren azken egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

Aurrekoarekin bat, azaldutako egutegi fiskal honen iragarkiak kobrantza iragarkiaren zeregina ere beteko du. Kobrantza ondorengo zehaztapenaren arabera egingo da:

a) Ordaintzeko epeak: Egutegi fiskal honetan agertzen direnak.

b) Ordaintzeko era: Helbideratutako erreziboak zuzenean sartuko dira bezeroak esandako Banku edo Aurrezki Kutxaren kontuan.

Helbideratzeke daudenei zorretan dutena ordaintzeko beharrezkoa duten agiria helbide fiskalera bertara bidaliko zaie.

Internet bidez ere, 24 orduetan, ordainketa egin ahal izango da, Euskal Administrazioaren ordainketa-pasabideko «Nire Ordainketa» tresnaren bidez, banka elektronikoen bidez edo barra-irakurgailua duten kutzazain automatikoen bidez, zerbitzu hori duten lehen aipatutako erakunde laguntzaile horietan

Agiri hori eskura izango ez balu, zorretan dagoenak edo haren ordeztatu ordaindu nahi duenak, Udaleko bulegoetan eskatuko du agiria, borondatezko ordainaldiaren barne.

c) Borondatez ordaintzeko denboraldiaren amaiera: Egutegi fiskal honetan zehazturiko borondatez ordaintzeko epea amaitu eta gero, zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituko dira, eta epe exekutiboari dagozkion errekarguak, berandutza interesak eta, hala badagokio, sor daitezkeen kostuak ere ordaindu egin beharko dira.

Irura, 2024ko urriaren XXa. – Gorka Murua Macuso Alkatea

3.º Publicar este calendario fiscal en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en la página [www.irura.eus](http://www.irura.eus) y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a los efectos de cumplir la función de anuncio de cobranza previsto en el artículo 18 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4.º Disponer que en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 14.1 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, los padrones fiscales, conteniendo las cuotas a pagar y los elementos tributarios determinantes de las mismas, se expondrán al público en las oficinas municipales en el plazo de quince días antes de iniciarse los respectivos períodos de cobro.

Contra el contenido de dichos padrones podrá interponerse recurso de reposición previo al contencioso-administrativo, durante el período de exposición pública de los mismos y en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente hábil al de la finalización de dicho período de exposición pública.

De conformidad con todo lo cual, junto con este anuncio del calendario fiscal se publica este anuncio referido a los períodos de cobranza. Cobranza que se efectuará de acuerdo con los siguientes extremos:

a) Plazos de pago: Los que figuran en el presente calendario fiscal.

b) Modo de ingreso: Los recibos domiciliados se cargarán directamente en las cuentas autorizadas de Bancos y Cajas de Ahorros.

Para los no domiciliados, el documento preciso para efectuar el pago de la deuda será enviado por correo ordinario al domicilio fiscal de los deudores.

También se podrá efectuar el pago, las 24 horas, a través de Internet, mediante la herramienta «Mi Pago» de la pasarela de pagos de la Administración Vasca, a través de la banca electrónica o a través de los cajeros automáticos con lector de código de barras, en las mencionadas entidades colaboradoras que dispongan de este servicio.

Cuando no se dispusiese el referido documento, el deudor u otra persona que pretenda realizar el pago lo solicitarán, dentro del período voluntario, en las oficinas del Ayuntamiento.

c) Finalización del período voluntario de ingreso: Finalizado el período voluntario de ingreso indicado en el presente calendario, las deudas serán exigidas por el procedimiento de apremio y devengarán el recargo de apremio, los intereses de demora y en su caso, las costas que se produzcan.

Irura, a XX de octubre de 2024. –El alcalde, Gorka Murua Macuso

**BOZKETA.- PROPOSAMENA AHO BATEZ ONARTU DA.**

**ALDE:** Gorka Murua Macuso (Eh bildu), Olaia Nieto Legarra(Eh bildu), Mikel Iturbe Saizar(Eh bildu), Idoia Garayalde Goicoechea(Eh bildu), Noelia Lataburu Ortiz(Eh bildu), Ioritz Lazcano Aranalde(Eh bildu), Gorka Sagarna Larrañaga(EAJ/PNV), Ana Jesus Leunda Gurrutxaga(EAJ/PNV), Begoña Tolosa Mendia(EAJ/PNV).

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:20tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**

